

**EUSKALTZAINDIAREN ETA *AURTEN BAI* FUNDAZIOAREN
ARTEKO *HITZARMENA*.
EUSKARAREN HIZKUNTZA ATLASEKO DATU BASE
AUTOMATIZATUAREN EGUNERATZEA**

**EUSKALTZAINDIAREN ETA AURTEN BAI FUNDAZIOAREN
ARTEKO HITZARMENA.
EUSKARAREN HIZKUNTZA ATLASEKO DATU BASE AUTOMATIZATUA-
REN EGUNERATZEA**

Bilbo, 1996-06-27

Badu dotzena bat urte obratzen hasia dela Euskaltzaindia euskararen atlas linguistikoa, horretarako batzorde berezi bat sortuz bere baitan, eta honek 2.800 galderako galdakizuna moldatuz. Ondotik, inkesta lanak 145 herritan eginak izan ziren toki bakoizko erantzunak eskuz kuaderno berezi batzuetan biltzen zirelarik.

Datu bilketaren aberastasuna ikusiz, eta gaurko teknikari dagozkion bideak erabili nahiz, Euskaltzaindiak pentsatu zuen halere datu horiek base automatizatu batean jaso behar zirela, eta halaxe egitea erabaki izan zen hasieratik atlasaren proiektuaren babesle izan ziren herri-agintarien onespren eta laguntzarekin.

Lehen urrats batean, programa bereziak datuak biltegi automatizatu batean jasotzeko eginak izan ziren xoilik, ez haien publikatzeko eta esplotatzeko, lan hau beste urrats baterako utzi baitzuen programatzeko lana bere gain izan zuen EJIE erakundeak. Denbora joan da hartaz geroztik, eta datu basean sartzeko diren datuetatik herenak baino gehiago bildurik daudelarik orain, bigarren urratsaren emateko ordua da. Horrek, haatik, informatikaren aldetik eguneratze berezia eskatzen du, bai programen aldetik, bai eta guziz zaharkiturik gelditu den tresneriaren aldetik ere.

Aurten Bai fundazioak informatika gaietan jakitate eta esperientzia baitu, eta euskararen aldeko lanak bere egitekoen artean baititu, ahal duen neurrian Euskaltzaindiari bere laguntza ekartzeko gerturik dago ateka horretan. Horretarako fundazioak aurrekontu bereziak aurkeztu dizkio Euskaltzaindiari (ikus 2. dokumentu erantsia).

Euskaltzaindiak *Aurten Bai* fundazioak soinu altxorren moldatzeko egindako lana kontuan izanik, eta haren proposamena informatika etxe zenbaitenekin konparatu ondoan, ontzat eman du proposamena, esanez haatik, akademiak berak sponsorren laguntza beharrezkoa zuela aitzina egiteko.

Aurten bai fundazioak horretan zerbait lor zezakeela pentsatuz, eta atlasaren proiektua lagundu beharrez, horretaz arduratzea proposatu du.

Gauzak horrela izanik. eta informatikaren eguneraketa egiteko gehiago luzatzerik ez zegoela gogoan izanik, J. Haritschelhar Euskaltzainburuak euskararen akademiaren izenean, eta A. Untzalu, *Aurten Bai* fundazioko buruak elkarte honen izenean, hitz harturik, honako hau finkatzen dute:

— Ondoko dokumentuan jasotzen diren eskakizun teknikoak betez (ikus 1. dokumentu erantsia), *Aurten Bai* fundazioak berehala egingen du Euskaltzaindiarentzat euskal

hizkuntza atlasaren proiektuaren informatika eguneraketa, hiru hilabeteko epea izanki horretarako.

— Xede horretan *Aurten Bai* fundazioak bi ordenagailu, programa berriaz horniturik, emanen dizkio Euskaltzaindiari (datuak jasotzeko), eta honek, berriz, beste bi ordenagailu eta bi inprimagailu erosiko ditu gutienez egitarau berriaren betetzeko.

— *Aurten Bai* fundazioak 1000 CD-ROM argitaratuko ditu atfaseko lehenbiziko datuak eskainiz. Halere epe arazoengatik edo beste arrazoi batengatik, Euskaltzaindiak hala komeniago ikusten balu, datu grafikoak eskaini ordez, ahozko euskararen antologia osatuko luketen CD audioak argitaratuko lirateke (azalpenak ematen dituen liburuxka batekin): antologia ere 1000 aletan argitaratuko litzateke.

— *Aurten Bai* fundazioak lan horren egiteko sponsor baten laguntza bilatuko du Euskaltzaindiarentzat, eta aurkitzen badu handik ordainduko zaio bere lana aurkeztutako aurrekontuetako kopuruak jaso arte (6.450.000 pzta.). Kopuru hura baino gehiago ere biltzen ahal balu, Euskaltzaindiarekin ikus liteke zertan balia dirutza hura atlasaren proiektuaren indartzeko eta hobekitzeko.

— Inolako sponsorrik aurkitzen ez balitz, Euskaltzaindiak 3 milioi pezeta ordainduko lizkioke *Aurten Bai* fundazioari: 2 milioi pezeta urriaren 1.ean informatika eguneraketa osoki bukatua baldin bada: beste milioi bat pezeta CD-ROMak argitaratzera-koan.

— Euskaltzaindiak izanen ditu egitasmo honen obratzeko egindako lanen, programen eta sortu ekoizpenen gaineko eskubideak eta jabegoa.

Bilbon. 1996ko maiatzaren 30ean

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Andoni Untzalu,
Aurten Bai
Fundazioko lehendakaria

EUSKALTZAINDIAREN ETA *AURTEN BAI* FUNDAZIOAREN ARTEKO *HITZARMENA*, EUSKARAREN ATLASEKO DATU BASE AUTOMATIZATUAREN EGUNERATZEKO

1. DOKUMENTU ERANTSIA

Euskal atlas linguistikoa: informatika-eguneraketa bideratzeko eskakizunak, Euskaltzaindiaren eta *Aurten Bai* fundazioaren arteko *hitzarmenari* lotuak.

1) Datu baseko emaitzak corpus bakar batean biltzea

1.1. Jadanik bildutako emaitzak (1000 galdera inguru, 1 eta 2. kuaderno manuskritoetakoei dagozkienak) osoki jasotzea, datu base zaharreko arkitektura eta edukina osoki errespetatuz eta atxikiz. Horrek modu berean balio du ortografia fonetikoan edo ortografia arruntean jasoriko erantzunentzat, bai eta beste testuentzat ere.

1.2. Datu-base honen 8 kopia egingo dira.

2) Datu base berriztatu bat eratzea

2.1. Datu-base berria eratuko da, base zaharreko datuak hartara ekarriz. Datu base berriko programa eguneratua eta estandarda izanen da, baina datu baseko arkitektura eta datuak errespetatu beharko ditu.

2.2. Datu ekarketa egiterakoan alfabeto fonetikoan jarriak izan diren zeinuak poliza estandardetan jarri beharko dira (API delakoaren polizetan, ahalaz). Transliterazio-taula egokia moldatuko du horretarako batzordeak.

2.3. Ekarpena egin ondoan kopia bat egingen da dokumentu honekin, aurreko datu basearen aldakia izanen dena eta hura bezala aldaezina izanen dena.

2.4. Datu base honen 8 kopia egingen dira.

2.5. Geroari begira datu sarrerako postuak sistema berriari egokituko dira, sartuko diren datuak datu-base berriztatuan emateko gisan (horretarako Donostiako datu sarrerako bi postuak tresna egokiz hornitu beharko ditu Euskaltzaindiak).

3) Datu-base berriztatuaren ezaugarriak

3.1. Datu-base berriko datuak eskuragarriak izanen dira, galderaka edo galdera multzoka (kodearen hierarkiaren arabera), inkesta-lekuka edo inkesta-leku multzoka

(kodearen hierarkiaren arabera); erantzunak, eskatu bezala, osoan, edo partez bilduko dira, azken kasuan, erantzun zuzenak, erantzun negatiboak (proposamenei eginak), edo erantzun osagarriak bakarrik, biltzen ahalko baitira; irizpide horien artean gurutzamenduak egiten ahalko dira; adibidez, halako galderarentzat, halako erantzun mota, halako inkesta lekuan eskuratzen ahalko da pantailean.

3.2. Edozein formaren (edozein zeinu segida, ez baitezpada hitz bat) edo edozein forma-multzoren okurrentziak jasotzen ahalko dira ortografia fonetikoan edo berdin ortografia arruntean dauden datuetarik; okurrentzia bakoitza bere erreferentziekin agertzen da (zenbagarren galdera den, zein inkesta lekutan, zein erantzun motatakoa).

4) Dokumentazio zerbitzu baten eraketa

4.1. Datu base berriztatutik abiatutik dokumentazio zerbitzu bat eratuko da, hari esker erabiltzaileek baseko datuak modu erraz eta goxoa eskuratzen ahalko baitituzte (datu hautaketa edozein irizpideren arabera egin izanik).

4.2. Normahik erabiltzeko moduko erabilera-sistema izan beharko du, sail izen-buruak mintzaira naturalean adieraziak izanik (batzordeak emandako argibideei jarraituz).

4.3. Nahi izanez gero dokumentazio zerbitzu honen eraketak kontuan hartuko ditu argitaratzaileen zuzenketak eta mapak.

4.4. Dokumentu honen kopiak jendartera zabaltzen ahalko ditu Euskaltzaindiak.

5) Argitalpen postuak eta atlas liburuak

5.1. Datu base berriztatutik abiatutik, erantzun zuzenak (edo proposatuak) eta mapak bilduko dituen liburuak egiten baitira, bi argitaralpen postu eratuko dira (Baionan eta Bilbon).

5.2. Galdera bakoitzarentzat erantzundegi-eredu bat eratuko da programa egoki baten bidez; hartan aurkituko da:

— Galderak, banaka aurkezturik, beren xehetasun guztiekin (zenbakia, itzulpenak);

— Galdera bakoitzari dagozkion zuzeneko erantzunak, bai eta nahiz izanez gero proposatutakoak ere; herriko zerrendaturik agertzen dira, eta ordenaturik bat baino gehiago direnean, bai ortografia fonetikoan, bai arruntean;

— Argitaratzaileentzat erantzunak libroki aldatzeko ahala (lehenbiziko datu basea, 2. eta 3. puntuetan aipatua, aldatua izan gabe), edo zuzenean, edo erantzunak 'kopia-kola' eginez beste testu batetik ekarritik;

— Zerrendetan argitaratzaileentzat orrialdepeko edo sailpeko oharak libroki sartzeko aukera;

— Ezaugarri batetik abiatuak, zerrendako erantzun mota bakoitzari edo haietako talde bati kodigo bat automatikoki emateko ahala, adibidez lema bati dagokiona: kodigo hori mapagintzari loturik dago;

— Argitaratzaileak bere lan postutik beretik, galdera horretako gainerako erantzunetara jo dezake haiek pantailera agertaraziz aski laster, han agertzen diren testuak kopia ditzake eta sortzen duen dokumentura ekar;

— Argitaratzaileak modu berean datu baseko dokumentaziora jo dezake.

6) **Kartografia**

6.1. Euskararen eremua osoki hartzen duen mapa bat eratua izan da, hartan inkestaleku guztiak agertuko baitira. Mapa hori beti bat bera izan da, baina hartan zati batzuk handitzen edo tikitzen ahalko dira zoomen bidez.

6.2. Kartografia sistemaren ezaugarriak:

— Galdera bakoitzeko erantzunetarik abiatuak, eta egindako kodigoaren arabera, mapak automatikoki egiten dira, kolorez edo sinboloz (edo biez) hornituri; mapetako errepresentazioak aukeran bi modutan egiten dira:

- puntuka: inkestaleku bakoitzak bere marka izanez, eta gaineratiko eremuak zurian egonik;

- eremuka: seinale desberdinen arteko mugak automatikoki marraztuak izanik.

— Erantzunetan edo irizpideetan aldaketak egin ondoan, araberako mapak pantailan berehala ikus daitezke.

— Mapa bakoitzak bere leienda du, hartan sinboloen erran-nahia argitzen baitu argitaratzaileak, berak nahi bezala.

— Argitaratzaileak sinbolo bereko inkestalekuen arteko mugak (isoglosak) egin ditzake zuzenean mapen gainean.

— Mapen gainean ortografia fonetikoan diren testuak agertaraz daitezke.

— Mapari dagozkion oharrak egin daitezke maparen azpian.

— Erantzunak eta mapak inprima daitezke.

Euskaltzaindiaren eta *Aurten Bai* fundazioaren arteko *hitzarmena*, Euskararen atlaseko datu base automatizatuaren eguneratzeko.

2. DOKUMENTU ERANTSIA

Aurten Bai fundazioak euskararen atlasaren informatika eguneraketa eta ahozko euskararen antologia egiteko aurkezturiko aurrekontuak:

Datuak programa berria sartzea	500.000
Programa egitea	3.650.000
Argazkiak, irudiak eta diseinua	800.000
CD-ROMen argitaratzea (1000)	650.000
CD-ROMekin batean liburuxka	300.000
Oinarrizko mapa eta logizielak erabiltzeko ikastaroak	550.000
GUZTIRA	6.450.000 pzta.

Josu Bergara,
Bizkaiko diputatu nagusia

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua